



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Russell T Davies eta pertsonaien garrantzia

Europar telebistako autore miretsi eta txalotuenetako bat da. 1999ko «Queer as Folk» entzutetsuaren eta 2021eko «It's a Sin» telesailaren artean, arrakastaz jositako bi hamarkada daude. Ikuslearen eta kritikaren oniritzia lortzeaz gain, telesail ingelesaren gorakadaren arduradun nagusietako bat ere izan dela esango nuke. Galestar jatorriko gidoilari, «showrunner» eta telebista ekoizlea den Russell T Davies (Swansea, Gales, 1963) sortzaileaz ari naiz. Urteak daramatza gizatasunez eta nortasun handiko pertsonaia berdingabez osaturiko istorio bizi eta entretenigarriak osatzen, eta horregatik, bere obraren ezinbesteko izen hauek gomendatu nahi dizkizut.



It's a Sin

HBO

Nortasun handiko pertsonaiez osaturiko istorio bizi eta entretenigarriak osatzeaz gain, drama zein umorearen artean nabigatzen duen bitartean, eta gizarte kritika inteligen- tea zabaltzeko duen behar hori erabiliz, hausnartzeko para- da ematen duten ekoizpenak

sortzeko duen trebetasuna ere erakutsi du Daviesek. Hori guztia, gainera, miniserie formatuan eta ireki eta ixten diren istorio mamitsuak jorratuz. Pet Shop Boys talde mitikoaren izen bereko abestiari erreferentzia egiten dion «It's a Sin» (Bekatua da) telesaila estreinatu du aurten eta oraingoan ere aurreko lane- tan funtzionatzen zuten tekla

berak zantatu eta telesail bi- kaina gauzatzea lortu du.

Londres, 80ko hamarkada. Hirian elkar ezagutzen duten hiru gazte homosexualen istorioa kontatzen da, hiesaren eragilea den GIB giza immu- noeskasiaren birusaren kalte- ak ezagutzen hasi den gizarte atzerakoi batean –“gay minbi- zia” etiketa jarri zioten gaixo- tasunari, pentsa beraz-. Bost

ataletan, 1981ean hasi eta ha- mar urtez luzatzen da fikzioa. Hamarkada igaro ahala, eta hiesaren itzala gero eta ger- tuago sentituz, hazten eta heltzen ikusiko ditugu, inoiz baino indar gehiagoz eta mai- tasun irmoagoz bizitzeko hel- buruz. Beren sexualitatea az- tertzea, aktore izatearen ametsa gauzatzea, lana lor- tzea eta noski dibertitzea, ha-

markada liluragarri honen testuinguruan. Desinforma- zioak, ezjakintasunak eta ho- mosexualitatea oraindik begi onez ikusten ez zuen gizarte atzerakoi eta apur bat ozpin- duaren atzaparrek ordea, bide hori maldatsua, bidegabea eta gogorra bilakatuko dute. Lotsa da telesailak jorratzen duen beste elementu narrati- bo bat, eta azpimarratzekoa iruditzen zait. Hau Ritchie To- zer pertsonaiaren eta bere fa- miliaren bitartez ikusten du- gu bereziki, pertsonaia guztiek protagonismo oreka- tua duten telesail korala den arren, nire ustez, pertsonaia horren istorioa baita argiga- rriena.

Hamarkada liluragarria ai- patu dut, pertsonaia magneti- ko eta berezi horiez gain, tele- saila maisuki girotua dagoelako. 80ko hamarkada- ko estetika berezi hori oso on- gi pantailaratzea lortu dute, estetikoki agerikoak diren elementuak erabiltzeaz gain (jantzitegia, argiztapena...) hein handi batean soinu ban- da bikain baten laguntza al- boan izan dutelako, hala nola: Enola Gay, Pet Shop Boys nos- ki, Kelly Marie, Patrick Cow- ley edo Eurythmics.

Dibertigarria da, baina ba- tez ere gogorra. Liluragarria eta aldi berean urratzailea. Russell T. Daviesen obrarik pertsonalena dela esango nu- ke. Ikuslearen bihotzera zuzen- nean doan telesail paregabea. Ezezaguna zen beste pande- mia latz bati buruzko kronika bikaina. Urtean zehar telesail gutxi ikusten dituen horieta-



koa bazara, hau da aukeratu behar duzunetako bat.

Years and Years

HBO

Koronabirusaren eztanda honen barruan irmotasunez gomendatzen dizudan izenburua, bertan ikusiko dituzun irudiak fikzio hutsa diren arren, zoritxarrez, gero eta ezagunagoak egingo zaizkizulako. 15 urteetan zehar, Lyon familiaren istorioa ikusteko aukera izango duzu, betiere urte horietan gizarte britainiarrean –eta munduan– ezinbestekoak izango diren gertaera politiko, ekonomiko eta teknologikoek izango duten eragin ikaragarria kontua izanda.

Sinopsia drama familiar arrunt baten inguruko istorio jasanezin eta errepikakorra irudituko zaizun arren, topatuko duzuna guztiz kontrakoa izango da. Errazago azaltzen saiatuko naiz. Hartu irabiagailua eta sartu: “Black Mirror” telesailaren xafila batzuk, “Sense8”-ren eta “This is Us”-en pertsonaien mamia, drama, umore beltza eta distopia esentzia apur bat. Alexa, Brexita, transhumanismoa, errefuxiatuak, gidoi biraketa harriarriak eta erritmo frenetikoa. Guztia ongi nahastu. Emaizta, HBOn ikusgai daukazu “Years & Years” telesaila. A zer harribitxia!

A Very English Scandal

AMAZON

Stephen Frears zuzendari eza-gunaren gidaritzari eta Russell T Daviesek idatzitako gidoiari esker, telesail motz bikaina osatu dute. Osagarrien artean gainera, Hugh Grant eta Ben

Whishaw aktoreak. Hilketak saiakeragatik auzipetu zuten lehen politikari britainiarren benetako istorio zirrarragarria ardatz duen miniserie aparta da. 1960ko hamarkadaren amaieran, homosexualitatea despenalizatu eta gutxira, Jeremy Thorp Alderdi Liberaleko buruak eta Erresuma Batuko alderdi politiko bateko bu-



ruzagi gazteenak zabaltzea nahi ez duten sekretu bat gordeko dute. Jeremy Thorperen epaiketak bertako politika bertiko aldatu zuela esan daiteke. Atalak aurrera egin ahala gero eta kutsu surrealistagoa hartzen joango den istorio hau kontatzeko, Frearsek komedia beltzaren printzak erabiltzen ditu, garaiko gizarte britainiarren hipokrisia eta moral bikoitza irudikatzeko, baita boterearen trikimailuei edo hedabideen sentsazionalismoari eraso egiteko ere.

Cucumber, Banana eta Tofu

FILMIN

XXI. mendeko sexu kultura aztertzen duten telesail trilogia. Hiru telesail independente, baina elkarrekin lotuak (pertsonaiei esker), Manchesterreko homosexual talde baten sexualitatea eta sentimenduak aztertzen dituztenak. Izenburuak zakilaren gogortasun egoerei egiten die erreferentzia, eta gizarte maila eta adin desberdinetako LGTBI talde baten errealtate poliedrikoa islatu nahi du, estereotipoetatik haratago joanez eta pertsonaien sentimenduak eta pertsonalitateak haien sexu identitatearen gainetik islatuz. Bata bestearen jarraian ikusteko beharrik ez dagoen arren, trilogiaren ezaugarri aipagarrienetako bat istorioak nola osatzen diren da; horregatik, interesgarria da modu paraleloan ikustea, batez ere “Cucumber” eta “Banana”. Bikote batek biziraun dezake sexuak funtzionatzen ez badu? Maitasuna, errespetua eta miresmena nahikoak izan al daitezke bi pertsona elkarrekin mantentzeko, hain fisikoa, oinarritzkoa

eta animaliazkoa den sexuak funtzionatzen ez duenean? Galdera interesgarriak dira eta erantzuten zailak. Telesailak ez du erantzunik eman nahi, baina berrogei urte inguruko pertsona batzuen bizitza erakusten digu, zalantza horien baitan mugitzen diren bitartean.

Doctor Who

AMAZON

Aitortuko dizut ez naizela telesail honen oso zalea, baina telebista britainiarren historiako ezinbesteko izenburua dela ezin ukatu. Historikoa eta ikaragarria da telesail honek lortu eta egin duen guztia, britainiar pop kulturaren ikur bilakatzen amaitu duen arte. Who Doktorea 750 urteko adina eta jatorriz Gallifrey planetakoa den estralurtar bat da, gizaki itxura hartu eta denboran nahiz espazioan atzera-aurrera bidaiatzeko gaitasuna duen izakia. Horretarako, ikono bilakatu den Tardis izeneko britainiar polizia kabina urdin bat erabiltzen du. Zientzia-fikziozko kontakizun horretatik abiatuz, telesailak bi aldi edo aro izan dituela esan daiteke: lehena, aldi klasikoa, 1963-1989 bitarte, eta bigarrena, aldi modernoa, 2005. urtetik gaur egunera arte. Urte horietan guztietan, aktore protagonista gorpuzten, hamahiru aktore desberdin igaro dira, eta 2017tik hona, historian lehen aldiz, emakume batek gorpuztu izan du gainera, Jodie Whittakerrek, hain zuzen ere. Munduko zientzia-fikziozko telesail luzeena bezala agertzen da Errekoren Guinness Liburuan. 800 atal baino gehiago eta 38 denboralditik gora.